

BRUNO ZABALA

Irala'k eraiki eban Paraguay'ko uriburu dan Asuncion, Garai'tar Joanes'ek Argentina'ko, Buenos Aires, Antxieta mixioalariak Brasil'eko Sao Paolo uri andia. Eta Bruno Zabala'k Uruguay'ko Montevideo.

Durango'ko semea zan, aita Zumarraga ta Ibarra kapitan ospetsuak lez.

1682'garren urtean jaio zan. Gizon andi zan aren aita. Ameriketako lurralde askotako agintari izandakoa.

Iru urte ebazala galdu eban bere aita, ta aren ama alargunak azi eban bere Brunotxu bizkorra.

GUDARI

Emeretzi urte ebazala etxetik urten, eta Flandes'ko gerratera abiatu zan. Eta kapitan maillara eldu izan zan laster, ango eraso ugarietan ondo jokatu.

Beste gudu bat sortu zan andik arin Espaiña bertan. Eta andik ona etorri, ta bertan esku artu eban.

Amabi urte luze iraun eban «Guerra de Sucesion» deritxon guda orrek. Pirineotik Gibraltar' erañoko lurralde geienetan ibili zan burruka.

Lerida'ko erasoan beso bat galdu eban. Alcantara'n barrio zauritu, ta atxillo artu eben arerioak. Alan ta guztiz be iges egin eban.

Guda ori amaitu zaneko, 34 urte ebazan Zabalak, eta «maris-

cal de campo» izateraiño iritxi zan.

AMERIKETAN

Guda luze au zala-ta, Espaiña'ko arerioak Ameriketako lurraldeai erasoka asi ziran.

Gero, bertako agintari ta gudariak naiko asarre ta asaldatuta egozan Espaiña'ko erregek bertan-bera itzita eukazalako.

Orrek guztiak zirala-ta, gure Zabala bialdu eban Espaiñako erregek Ameriketara, Rio de la Plata'ko lurralde guztien buru ta agintari lez.

Aratu zaneko Prantziarrak sartuak zengozan ango lurraldetara. Zabala'k orduan ango bere mutillak armaz ondo jantzi ta eratu ondoren, Prantziarra eraso eutsen. Eraso ta apurtu; apurtu, ta andik bialdu.

Portugal'darrak etorri ziran Prantziarren urrengo. Brasil, aita Antxieta'k jendatutako lurraldetik etorri ziran, eta Uruguay'ko zabaldietara sartu.

MONTEVIDEO

Zabala'k orduan bere itsasontzi zarrak konpondu; beste barri batzuk egin, eta areen aurka urten eban. Eta laster bialdu ebazan danak aurrean.

Uruguay lurralde ederra zan, baiña landu bakoa; landu bakoa, ta jente urrikoa.

Ori zala-ta, Espaiña'ra laguntza eskatu ondoren, Lemoa'ko seme Altzaibar kapitana etorri jakon, berregoitamar familia berrri ta laureau.n gudariz inguratirik.

Altzaibar'en lagunai bereak eta «tapes» izeneko bertako milla inditar geiago batu, ta Montevideo'ko uria eraiki eban Zabala buruzagiak.

Uria eraiki; aren kai ederra jantzi; ta aren inguruko mendi tontorrek indartu, kañoez indartu bai, itsaslapurren erasoan bildurragaitik.

GIZANDI

Montavideoko uria eraiki, ta Paraguay'ko matxinadak garaitu ondoren, Chile'ko agintari egin eban Espaiña'ko erregek.

Eta arako gertukeretan ebillela, bat batean it jakun 53 urte ebazala. Ona emen zer diñoskun oneri buruz Uruguay'ko idazle Raul Montero jaunak:

«Aundi ta eder..., gudari bizkor, agintari trebe, ta patxadazko gizona zan; zorrotza eta biotz onekoa, une berean. Au dogu Uruguay'tarrok iñoz izan dogun egintari on eta andiena».